

**BIZKAI EUSKERAREN
JARRAIBIDE LIBURUA**

Lehenengo pausuak

LABAYRU IKASTEGIA

**BIZKAI EUSKERAREN
JARRAIBIDE LIBURUA**

Lehenengo pausuak

2. argitaraldi birlandua eta ugaritua

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXAFUNDAZIOA
BILBAO
2002

1. argitaraldia: 2001
2. argitaraldia: 2002

Lan honen egikuntza Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babes eta dirulaguntzari esker izan da.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-2674-02
ISBN: 84-89816-50-6

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokimikoko, magnetikoko, elektrooptikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimen barik.

BIZKAIKO ALDUNDIARI

*Bizkaiak emon euskun bertoko euskerea.
Bizkaiko Aldundiak jarraibide-liburu hau atontzeko agindua.
Zure ardurapean zainduko ahal da
geroko gizaldietan
lehengo gizaldietatik jatorkun
hizkuntza ondarea.*

Labayru Ikastegia

Egileak

Zuzendaria:

ADOLFO AREJITA

Lankideak:

ANA OAR-ARTETA

HIART LEGARRA

Laguntzaileak:

Bizkaia Irratia (Dorleta Alberdi)

Oihane Etxebarria

Gorka Insunza

Elisabete Zallo

Ohargileak:

Asier Astigarraga

Nestor Atxikallende

Maribi Egia

Unai Elorriaga

Aitor Erdozia

Nuria Mugartegi

Fauxtin Urrutibeaskoa

ALDUN NAGUSIAREN AURKEZPENA

Bizkaiko Aldun Nagusia nazala, gogo-gogoko jat aurkezpen hau egitea, bizkaierearen idazkerea beren beregi bihar-etzi ezarriko dauan obra nagusiaren hasikerea dan lan honena. Egin-eginean bere, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak batera aztertu eben arazoa, eta erabagi eben Labayru Ikastegiari mandatua egitea, berak antolatu egian bizkaierearen idazkerea liburu legez hartu daikangun obra hau burutzeko.

Bizkaiko Lurralde Historikoan urtean baino urtean ardura handiagoa ikusten izan da, eta herri aginteetan ardurea dogunok ezin deusagu entzungor egin gizarte osoaren eskari horri. Beti bere, garbi izan dogu hasikeratik herri aginteei ez jagokela korpua zehaztea, bai, ostera, euskal gizartean izen handikoa dan erakunde baten lanari erakunde-babesa emotea.

Liburu hau hasikerea da, eta Euskadiko eta Bizkaiko gizarteak ikusiko dabe, modu honetara, badagoala euskarri bat, guztiak ontzat hartzeko modukoa dana, bizkaiereari ospea emoteko. Eta hau ez da garrantzi gitxiko kontua. Ez, horixe! Bizkaiko hainbat herritan agiri diran aldizkarietako idazlariak esku-eskura izango dabe eredu ziburra, bizkaieraz idatzi gura izan ezkerro, hori zelan egin behar daben jakiteko. Eta, tokian tokiko berezitasunak gorabehera, bizkaiera batu eta estandarra egin ahal izango dogu guztion artean denporearen puruz. Modu honetara, bihar-etziko euskaldun bizkaitarrak eredu jakina izango dabe, eta, eredu hori erabilita, euskera estandarri bere euren ekarria egin ahal izango deusoe. Mikel Zarate zanak esan eban “*Dakigunetik ez dakigunera*” esalditik denpora luzea igaro da, eta bitarte luze horretan Bizkaiko euskereak geroago eta esparru zabalagoak hartu izan ditu, bai eta geroago eta izen hobea bere bai. Aurrerantzean bere hau holan izango al da!

Josu Bergara Etxebarria
Bizkaiko Aldun Nagusia

SARRERAKOA

Arrazoiak eta aurretikoak

Lan apal honen asmoa, gure euskal gizarteak, berariaz bizkai hiztunonak, aspaldirik agertu dauen eskariari erantzun bat emotea da, behin-behineko eran baino ez bada be. Bizkai euskeraren eredu jagiari itxura egonkorrago bat emoteko egiten dan ahalegin barri bat, lehenagorik egin diranen gainera datorrena. Baina barrikuntza batzuk be badakarz ostera: hitz, hizki eta hitz-kateen morfologia edo itxuratik urrunago joan gura leuke. Hitzen itxurak bere garrantzia dau, eta maila horretan azaltzen jakoz esatari edo idazleari zalantzarik behinenak; baina ez datza horretan hizkuntza edo berbakera baten guna; hitz-kate eta esaldien joskeran isladatzen da argiroago haren kolorea eta usaina. Liburu honetan, gure berbakunearen hitz-joko, esate-modu, sintaxi-berrezitasun eta esangura askoren argibide eta norabideak aurkituko ditu irakurleak, morfologia-ereduakaz batera.

Lan hau ez da hutsetik sortu: bizkai euskeraren inguruan lehenagorik egin diran finkatze-ahaleginen jarraiko katebegia da, eta hareekazko zordun. 1937ko guduaren ostean ilunaldi luze batek hartu eban euskera, eta era garratzagoan bizkai euskera. Batasunaren beharra nagusitu eta hatarako egarria bizitu ahala, bizkai euskera gitxienduta geratu zan. Halanda be, urteak joan urteak etorri, idatzirako gramatika-araubideak isurtzen joan dira, batzuk euskera batua finkatzen hasi aurretik, baina gehienak haren ondoren.

Gaur egun gehienok ohi darabilgun bizkaiera ereduaz esan behar dana da, tradizino idatziaren eta ahozko euskera biziaren ardatzetan oinarritua dala . XIX. mende amaieratik XX. mendearen lehen herenera arte —gudura arte, zehatzago esateko— tradizino horretatik urruntzen ziran hizkera-antz asko bultzatu eta garatu ziran gure artean —eta ez gitxi hutsetik sortuak—, batez be hiztegi kontuan, baina ez gitxi aditz jokoan, eta bardin deklinabideko eta bestetariko gramatika-hizkien eremuan. R. M. Azkuek, hiztegi nagusia argitaratzeaz, asko lagundu eban bizkai euskera, giputz euskeragaz nahaste, tradizinoaren errotara ekarten, baina gramatika-alderdi batzuetan, aditzarenean berariaz, aranatarren zurrunbiloan iraun eban. Sebero Altube izango zan, haren *Morfología Vasca*-ri eginiko “Observaciones” diralakoetan, aditzean zein beste arlo batzuetan, eredu klasikoaren argia erakutsiko ebana. Sintaxi kontuetan, ostera, guztiz garbizale agertu zan hau be. Zamarriparen izena be ez da ahaztutekoa aldi horretan; beronen bizkai herri-euskeraren argibide jakingarriai esker, idazkera-estilo zindo jator baterako bidea edegi euskun, batez be *Manual del Vascófilo* (1913) liburuaz.

Gudu ostean Arantzazuko frantziskotarrak izango dira goiztarrenetarikoak gramatika-norabide zuzenak eskeintzen. Joseba Intxaustiren *Euskal-Aditza. Gipuzko-bizkaierak* (1960) gramatikak euskalki literarioen tradizinerik onenetik edango dau. Artean, Bilbon eta Bizkai inguruan Azkueren geriza luzeak indartsu iraungo dau askoz geroago be. Haren bidetik joko dau Pedro Pujanak bizkaierazko aditz-jokoaren liburu egiten dauenean. Eta bardin *Agur* eta *Zer* aldizkariak. Baina tradizino zaharraren iturrira joko dau Eusebio Erkiagak bere literaturgintzan, eta era apalagoan Aresti edo Irigoienek. Bardin gerotxoago Mikel Zaratek, Derioko

Seminarioan eta Udako Euskal Ikastaroaren gerizpean landuko dituan lanetan, gudu aurreko gramatikarien zama astuna astindurik. Guztiok ahalegin egin dabe tradizionorik onena eza-gutzen eta handik edaten: Barrutia, Mogeldarrak, Añibarro, Frai Bartolome, Astarloa idazle klasikoen artean, Arresebeitia, Agirre, Kirikiño eta beste tradizino modernoagoan, baina beti be ahozko hizkera biziaz gantzaturik euren sortzapenak.

Derioko Udako Euskal Ikastaroa izango da 1970etik gora bizkaiera eredu idatziaren eta haren literatura-emaiztaren ikaskuntzan saiorik gehien egingo dituana. Hainbat ikasbide-liburu dira, beste eratakoakin batera, horren lekuko. Labayru Ikastegia izango da 1977tik aurre-ra hizkuntza-ahaleginok bere altzoan hartuko dituana. Eragin hirukotxa euki dau lan etenba-ko honek: irakaskuntza bidez bizkaiera jagia komunikabide natural bihurtzea bizkaitar hiztun heldu askoren artean; literatura-testuen azterketa eta sorkuntzaren bidez bizkaiera idatziari lehenago eukan funtzionaltasuna atzera emotea; eta azkenez, gramatika-lanen bidez bizkai euskeraren ezaguera arrazoibidezkoa bultzatzea. Mikel Zarateren *Euskal deklinabidea* (1975) ez neuke aiatatu barik itxi gura ibilbide luze honen erakusgarritzat.

Harik urte batzuetara Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila izango da, beronen Euskara Zerbitzuaren bidez, bizkaiera irakaskuntza arautuan irakastorduan sortzen ziran ezbai eta argi-ilunei aurre emon nahirik, oinarritzko arau batzuk finkatzeko asmoa hartuko dauena. Horren emaitza dira ondoko biak: *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza* (1983) eta *Bizkaierazko Joskera* (1984). Labayru Ikastegiko eta Bilboko Hizkuntza Eskolako irakasle batzuk ibili ginan langaiok atontzen, Alfonso Irigoien euskaltzaina aholkulari genduala. Obra bitzuk, batez be lehenengoak, eragin zuzen eta zabala izan dabe harrezkeroko bizkaiera-emaiztan: testugintzan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta literaturan. Anekdotak gisa kontau nei, Eusebio Erkiaga idazleak poz handia hartu ebala bere zahartzaro betean lanok argitara ziranean, eta aurrerantzean han ezarritako ereduaz baliatu zala bere sorkuntza-lanetan.

Azken urteotan, bizkai euskerak eta euskalkiak oro har halako birloralditxoaz ezagutu dabe. Eta luzaroan galarazota euki dituan esparru batzuetan be lekutzua egin jako. Luzarotxuan egon da bizkai euskera hiru-lau leku izentadutan baino sarrera erorosik ez ebala: euskaldun helduen eskolatzea (Labayru Ikastegia), argitaletxe bakanen bat (Ibaizabal), irrati- ren bat (Bizkai Irratia), ikastolaren batzuk, administrazino-gune gitxi batzuk (Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bermeoko Udala), aldizkariren batzuk (*Idatz & Mintz, Zer*), e.a.

Baina azken urteotan, bizkai euskeragazko sentiberatasun barri baten ezaugarriak loratu dira gure gizartean. Orain urte batzuk (1997) hasi zan “Mendebalde Alkartea” sartalde edo mendebaldeko euskera honen inguruko jardunaldiak atontzen, eta kezka horrek eraginda mintegi bi bultzatu zituan, bata gure euskalkiaren izen-morfologia arautzeko eta bestea aditza arautzeko. Mintegiotan partaide izan gara Labayru Ikastegiko kideak be, eta ondorenez erizpide bateratsuakin jokatu dogu guztiok, eta beti be aurretik bestek eginiko saio-ahalegi- nak guztiz kontutan dirala. Oraintsuago (2000) *Euskaldunon Egunkaria* be *Bizkaia* gehiga- rria bizkai euskeraz idatzirik ateraten hasi da. Euren jardunean darabilezan morfologia-eriz- pide nagusiak, neurri handi baten lehen horretan genbiltzanokazko hartuemonean hartu dira. Garrantzi handikoa izan da edozelan be, egunkari batek halako pausu bat emon izana, artean Bizkaiko komunikabideetan azken gerrateko etenaldiaren ondoren ikusi ez dana.

Edukia eta metodologia

Argitara dakarguzan *idazteko jarraibide* honeekin jadetsi nahi dana, morfologia finkatzea baino gehiago, idazkeran zuzentasuna eta estilo ona bilatzen erabiltaileri laguntzea da.

Liburuki honetan *oinarri-oinarrizko jarraibideak* baino ez dakarguz. Gramatikako arlo edo atal batzuk hautu ditugu, eta euron deskripzinoa egin, falta diranai ondoren ekiteko asmoz. Deskribatutako alderdiok honeek dira: idazkera arauak, deklinabidea, graduatzaileak, hitz-atzekariak, determinatzaileak eta berben sortze-bideak. Hitz-kategoriai jagokenez, izena, izenordaina eta aditza jorratu dira gehien. Joskerari, gitxi-gitxi baino ez deusagu heldu, berariaz hitz-atzekari batzuen erabilera deskribatzen danean, zeharka baino ez bada be, argibide batzuk garandu ditugun arren.

Bigarren ale baterako itxi dogu, bada, hemen landu bako sintaxi arloak zehero aztertzea, eta, estilo-obra bati jagokonez, hizkuntza-eredu formala darabilgun komunikabide-kontestu garrantzitsuenetako formula eta eredu zurrak eskeintzea.

Igaroko urte eta hamarkadetan literatura bidez eta gramatika bidez egin diran ahaleginak gorabehera —eta ez dira hain gitxi, batez be Derioko Udako Ikastaroaren inguruan azken hogeta bost urteotan sortu diran ikas-liburu eta irakur-liburuak—, lexiko, morfologia eta sintaxi mailako zalantzak ez dira guztiz uxatu. Dana esateko, zalantza-kontu honetan ez da bizkai euskerarena erru osoa; erabilitailearena eta haren ezjakinarena da zati handi baten. Edo sakonagora joanda, gizarteko erakundeena; honeek ez deuselako oinarri onik emoten jakin ikasle-denporan bizkaiera erabili gurako horri. Mikel Zarate aspaldiko lagunak esan ohi eban lez, euskera ona ikasi gura dabenak jo bei idazle zaharretara eta herriko hiztun onengana. Baina hazi hori lur agorrean jausi dala dirudi, hainbeste euskera-lanbidedun bizkaiera dala-ta burua hausi beharrean ikusita.

Dana dala eta guzti be, hatariko edo honetariko zalantzak ez dira guztiz aldendu bizkai euskera jagiaren kontuan. Eta zalantza txikiak gitxienez, gutariko edozeini suberta lekioz bizkaiera jagia darabilgunean. Ez hainbeste, etxeko erara egiten dogunean edo modu informalean dihardugunean. Komunikabideetako erredaktore eta esatariak, ikastetxeetako irakasleak, administrazinoko euskera-trebatzaileak, itzultzaileak sarri jausi ohi dira zalantzapean, edo berbaren bat zelan idatzi dala, edo aditz-formaren bat dala, atzizki edo posposizinoen bat dala, esamoduren bat dala...

Zalantzok era askotakoak izaten dira: *arratsalde* ala *arrasti*, *ebezan* ala *zituen* idatzi behar dan edota *zitzezan* zilegitzat jo leiteken, *ordu bata*k ondo esanda dagoan ala *ordu bata* erabili behar dan derrigorrez, *bederatziak* ala *bederatzirak*, *erreten* ala *erretzen*, *nizaz* ala *nitaz*, *batzuetan* ala *batzutan*, *deutsogu* ala *deusagu*, *podazuz* ala *porasuz*, *errez* ala *erraz* eta abar luze bat, batzuk baino ez aitatzearren. Gure beharrau egikeran horreetariko zalantzak ebatzi guran ibili gara, eta aldi berean eta bide batez, erabilera okerrak zuzendu guran.

Gure *jarraibide* honeek ahalik eta modurik erraz eta ulergarrienean taiutzen egin dogu ahalegin. Kontzeptuai jagokezan zientzia-izenetara ez dogu ahal dala jo, eta izendapen soil errazena erabili ditugu euron ordez. Hizkuntza-gai bakotxari jagokon azalpena be labur eta erraz emoten saiatu gara, ez aditueta pentsaeta, erabilitaile zehegan baino. Fenomeno bakotxa adibide eta kontestu ugarigaz hornitzera egin dogu. Askotan, izan be, adibideen bidez errazago aditzen emoten da zerbait, azalpen hotzaren bidez baino eta. Adibide kontesturatuak bide aproposkoa izan ohi dira geure bizkai euskeraren ezaugarri eta berezitasunak erakusteko; sarritan zehazten erraza ez dan bertokotasun-antz edo estiloa aditzen emoteko.

Hitz, hizki eta egituren itxurearen aldetik ez dogu estuegi jokatu gura izan, batez be aldaera indartsu bi alkarren lehian egozan kasuetan. Gurago izan dogu zalantza-puntu batzuetan gizartearen esku itxi itxura batari edo besteari indar egitea. Holakoetan, bada, aukera bikotxa

eskeini dogu. Halan, aditz jokoaren arloan, paradigmak emon orduan A eta B taulak eskeini ditugu batzuetan. Edota lauki baten barruan adizki bi aukeran emon, beste batzuetan.

Aukera bi emote horrek ez dau esan gura lehentasunik ez dagoanik. Aldaera bi diranean, lehenengoa eta bigarrena dagoz, A eta B ereduak. Esan gura da, lehenengoa hobesten dogula bizkai eremu osorako, baina bigarrena be ontzat emoten dala edo ez dala baztertzen, batez be aldaera hori erabilia dan lurraldeetarako. Aditzen emon gura dana da, bikoiztasunak diran kasuan, norako eta ze hizkuntza mailatan erabilten dan be gogoan izan behar dala.

Ezarri ditugun adibideak ahozko euskerakoak dira gehiago, eta ez hainbeste autore klasiko edo modernoetatik hartu edo egokituak. Autoreotarik be jaso dira zita batzuk, halan ere-txi izan jakunean eta idazlearen izena aitatzen dala.

Ereduzko adibideak eskeintzeaz gainera, hain egoki eta zuzenak ez diran edo guztiz okerrak diran erabilera batzuk be erakutsi gura izan ditugu, batez be hiztunen artean edo testu idatzietan zabal dabiltzan “okerbideak” diran ginoan. Horretarako zeinu batzuez baliatu gara, estilo-liburuetan usu diran zeinuez hatan be. Erakusgarritzat hautu ditugun erabilera oker edo badaezpadakoen eskuman, proposatzen dogun egitura zuzenaz berridatzi dogu adibidea. Horra bada, zeinuon esangurea:

- (*) Asterisiko-ikurrak esaldi hori euskeraz guztiz agramatikala dala adierazo gura dau. Berorren alboan, eskuman ipini da zuzentzat edo egokiagotzat jo dogun esaldia.
- (↓) Beheranzko gezia ipini deusagunean esaldi bati, esan gura da, agramatikala ez bada be, badaezpadako erabileratzat jo dala.
- (↑) Goranzko gezia ipini deusagu, beheranzko gezia daroan ezkerreko esaldiaren aldamenean ipini dogun bigarren aukerari, hau egokiago eta jatorragotzat jotzen dogula.

Hurrengo baterako lagako dogu, bada, hemen landutako gaiak orraztu eta ugaritzea, edota barriak jorratzea. Oraingoz “dagoanean dagoantxo, ene enetxo” esan beharko dogu. Halanda be, itxaropena badogu, gure irakasle, kazetari, idazle, itzultzaile edo osteango erabiltzaileak onura ateraten jakingo dabela honetatik. Hala biz.

Adolfo Arejita
Bilbon, 2001eko abenduan

GAIEN AURKIBIDEA

1. IDAZKERAARAUAK	31
1.1. LETRA LARRIAK EDO MAIUSKULAK	31
1.1.1. Hasieran eta puntuazino-marken ostean	31
1.1.2. Izen bereziak erabilten diranean	31
1.2. LETRA XEHEAK EDO MINUSKULAK	33
1.3. PUNTUAZINO-MARKAK	33
1.3.1. Koma	33
1.3.2. Puntu eta koma	35
1.3.3. Puntua	36
1.3.4. Bi puntuak	36
1.3.5. Eten-puntuak	37
1.3.6. Harridura-marka eta itaun-marka	38
1.3.7. Parentesia	38
1.3.8. Marra luzea	39
1.3.9. Marratxua	40
1.3.10. Marra makurra	40
1.3.11. Kakotxak	41
1.3.12. Apostrofoa	42
1.4. ALKARKETA	42
1.4.1. Lotuta	43
1.4.2. Bereiz	43
1.4.3. Marratxuz	44
1.4.4. Marratxuz zein marratxu barik	45
1.5. ERATORPENA	45
1.5.1. Atzizkiak eta aurrizkiak	45
1.5.2. Atzizki berezi batzuk	45
Bako	45
Gura / Nahi	45
Leku / Toki	46
1.6. MAILEGUTZA	46
1.6.1. Latinetik	46
1.6.2. Grekotik	46
1.6.3. Erromantzetik	47
1.7. LOTURIK ALABEREIZ	47
Arazo	47
Ba	47
Ezkerro	47
Nongura / nonahi / non-nahi, zenbatgura... ..	47
1.8. KONTSONANTE ALTERNANTZIAK	47
b / p	48
d / t	48

g / k	48
p / f	48
1.9. SIGLAK	48
1.10. IKURRAK ETA SINBOLOAK	49
1.11. LABURDURAK	50
1.12. "H"	50
2. BERBAK SORTZEKO BIDEAK	53
2.1. ALKARKETA	53
2.2. ERATORPENA	54
2.2.1. ATZIZKI ERATORLEAK	55
2.2.1.1. IZEN-ATZIZKIAK	55
• Izen abstraktuak	55
-DADE	55
-EZIA/ -TZIA	55
-GINTZA	55
-GO	55
-ERA	55
-(K)ERIA	55
-MENDI	55
-PEN	55
-(T)ASUN	55
-TZA	55
• Egilea	55
-ERU	55
-GIN	55
-GILE	55
-KO	55
-(L)ARI	55
-LE	55
-(T)ARI	55
-TZAILE	55
• Moltzotasuna / zenbatekoa	55
-DI	55
-(K)ADA	55
-KETA	55
-(T)ERIA[-tegi]	55
-TZA	55
• Tresna edo baliabidea	55
-GAILU	55
-GARRI	55
-KI	55
• Objektua, produktua, emaitza...	56
-(K)ARI	56
-KI	56
-KIN	56
-KIZUN	56
-KO	56
• Lekua	56
-TEGI	56
-LEKU / -TOKI	56

• Sasoia	56
-ARO, -ZARO	56
-TE	56
• Ekintza eta ondorioa	56
-ADA	56
-ANTZA	56
-DURA, -TURA	56
-ERA	56
-KA	56
-(K)ADA	56
-(K)ETA	56
-KO	56
-KUNDE	56
-KUNE	56
-KUNTZA	56
-MEN	56
-MENTU	56
-TE / -TZE	56
-TZA	56
-ZINO	56
• Era, zelakotasuna	56
-KERA	56
-KUNE	56
2.2.1.2. ADJEKTIBO-ATZIZKIAK	57
• Joera, izakera edo zaletasuna	57
-BAKO	57
-BERA	57
-ERU	57
-GIN / -GILE	57
-GURA	57
-KOI	57
-(K)OR	57
-(T)AR	57
-TUN	57
• Jatorria	57
-(T)AR	57
• Ugaritasuna	57
-DO	57
-TI	57
-TSU	57
-ZTO	57
• Jabegoa	57
-DUN	57
• Gaitasuna	57
-GARRI	57
• Zelakotasuna	57
-KO	57
-ZKO	57
• Eztasuna	57
-GA[-ge]	57

2.2.1.3. ADBERBIO-ATZIZKIAK	58
• Atzizki eratorleak	58
-ERO (-ORO)	58
-IK	58
-KA	58
-RO	58
-TA	58
-TO	58
-TSU	58
-TZAKA	58
• Deklinabideko atzizkiak	58
-AN	58
-ARREN	58
-GINEN	58
-KERA	58
-RA	58
-TAN	58
-TARA	58
-TIK	58
-Z	58
2.2.2. AURRIZKI ERATORLEAK	59
BER- / BIR-	59
DES-	59
EZ-	59
SASI-	59
2.3. MAILEGUTZA	59
2.4. LEXIKOAREN BERREZARPENA	59
2.5. ZABALKUNTZASEMANTIKOA	60
3. IZENA	63
3.1. IZENAREN SAILKAPENA	63
3.1.1. IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK	63
3.1.1.1. KASU BEREZI BATZUK	63
• Erabilera bikotxa daben izenak	63
• Siglak	64
• Ikurrak edo sinboloak	64
• Laburdurak	64
• Leku-izenak	64
3.1.2. IZEN ZENBAKARRIAK ETA ZENBAKAITZAK	66
3.1.3. IZEN NEURGARRIAK ETA NEURGAITZAK	66
3.1.4. IZEN BIZIDUNAK ETA BIZIBAKOAK	67
4. IZENORDAINAK ETA ERAKUSLEAK	69
4.1. PERTSONA-IZENORDAINAK	69
4.1.1. PERTSONA-IZENORDAIN ARRUNTAK	69
4.1.2. PERTSONA-IZENORDAIN INDARTUAK	70
4.2. ERAKUSLEAK	76
4.2.1. ERAKUSLE ARRUNTAK	77
4.2.2. ERAKUSLE INDARTUAK	78
-XE atzizkidunak	79

BER- aurrizkidunak	81
EUR- aurrizkidunak	82
HA- aurrizkidunak	83
Leku-adberbio arruntak	85
Leku-adberbio indartuak	85
Denpora-adberbioak	87
Moduzko adberbioak	88
Pleonasmo batzuk	88
4.3. GALDETZAILEAK ETA GADETZAILEETATIK ERATORRIAK	89
4.3.1. GALDETZAILEAK	89
NOR / NORTZUK	89
ZER / ZERTZUK	91
ZEIN / ZEINTZUK	93
4.3.2. GALDETZAILEETATIK ERATORRIAK	94
E- / I-	95
-EDO- / BAIT-	95
EDO- / -GURA/ NAHI-	95
4.4. ALKARKARIAK	97
ALKAR	97
BATAK BESTEA	98
4.5. BIHURKARIAK	98
NEURE BURUA.....	99
5. DETERMINATZAILEAK	101
5.1. MUGATZAILEAK	101
5.1.1. ARTIKULUA	102
a) -A/ -AK: artikulu zehaztua	102
b) -O / -OK: artikulu zehaztu hurbila	104
c) BAT / BATZUK: artikulu zehaztubakoa	104
d) -A/ BAT: noiz bata eta boiz bestea?	106
5.1.2. ERAKUSLEAK	107
a) HAU / HORI / HA// HONEEK / HORREEK / HAREEK	108
b) HON- / HOR- / HAR-	108
5.2. ZENBATZAILEAK	109
5.2.1. ZENBATZAILE ZEHAZTUAK	109
a) Zenbakiak (kardinalak): bi, berrogeta hamar, berrehun... ..	109
b) Ordinalak: azken(engo), laugarren, bostgarren... ..	110
c) Zatikiak: heren, lauren, hamarren, erdi... ..	111
d) Ehunekoak: %2, %4a, %90ak... ..	112
e) Banatzaileak: bana, bina, berrogeta hamarna, ehun bana, bostehuna mila... ..	112
f) Esapide batzuk: bitik gora / behera, zu eta biok, sekulakoak eta bi, biki, bakun, lautan, berrogetazak, bizpahiru... ..	113
5.2.2. ZENBATZAILE ZEHAZTUBAKOAK	113
Aldra	114
Apur bat	114
Asko	114
Ato	115
Batzuk	115
Berein	115
Bost	116

Dezente	116
Edozenbat	116
Franku	116
Gitxi	117
Gura adina [/ Guraina]	117
Hainbat	118
Hainbeste, horrenbeste, honenbeste	118
Hamaika(txu)	118
Horrenbat	118
Makina(txu) bat	118
Moltso	119
Mordo	119
Nahia	119
Nahiko(a)	119
Parrastada (Zarrastada)	120
Partidea (Partida bat)	120
Pilo	120
Pitin(txu) bat	120
Pixka bat	121
Puskea	121
Talde	121
Txorta	121
Ugari	121
Zati	121
Zenbait	122
Zenbat	122
Zenbatgura	122
5.2.3. ZENBATZAILE OROKORRAK	122
Bete	122
Dana	123
Guzti	123
Oro	124
Oso	124
5.3. DETERMINATZAILE ZEHAZTUBAKOAK	125
ZEIN (edozein / zeingura / zeinahi)	125
ZER (edozer / zergura / zernahi)	125
6. DEKLINABIDEA	127
6.1. PARADIGMAOROKORRAK	129
6.2. PARADIGMAOROKORRAREN APLIKAZINOA	131
6.2.1. NOR	147
6.2.2. ZERIK	149
6.2.3. NORK	153
6.2.4. NORI	155
6.2.5. NOREN	156
6.2.6. NORENTZAT	158
6.2.7. NORGAITIK	160
6.2.8. NOGAZ	161
6.2.9. ZEREZ	164

6.2.10. ZERTZAT	167
6.2.11. NON	168
6.2.12. NONGO	171
6.2.13. NONDIK	174
6.2.14. NORA	176
6.2.15. NORAKO	177
6.2.16. NORAINO	179
6.2.17. NORANTZ	180
6.2.18. NOrenGAN	180
6.2.19. NOrenGANDIK	182
6.2.20. NOrenGANA	183
6.2.21. NOrenGANAINO	184
6.2.22. NOrenGANANTZ	185
7. POSPOSIZINOAK edo HITZ ATZEKARIAK	187
ADI	187
ADINA	187
AGINEAN, aginik	188
AHALA	189
ALBOAN, albo	189
ALDE	190
ALDEAN	191
ALDETIK	192
ANTZEAN	192
ARABERA	193
ARLOAN	194
(-) ARREN	194
ARTEAN/ ARTE	195
ATE	196
ATXAKIAN	196
ATXINA	197
ATZEAN	197
AURKA	198
AURREAN	199
AZPIAN	199
BAKO [/ BAGAKO]	200
BARIK	201
BARRENEAN	202
BARRI	203
BARRUAN, barru	204
BATERA, BATEAN	205
BAZTERREAN	206
BEGIRA	206
BEHARREAN	207
BEHEAN	208
BESTE	209
BESTE BARIK	210
BIDER	210
BIDEZ	211
BILA	212

BILDUR	212
BITARTEAN,BITARTEZ	213
BURUZ	214
DUIN	215
EDU [/ Eredu]	215
ERDIAN	216
ERRUZ	217
ERTZEAN	217
ESKE	218
ESKER	218
ESKU	218
ESPERANTZEA, esperantzan	219
GAINEAN	219
GARREN, -garren	220
GINOAN	221
GOIENEAN	222
GORA	223
HARA	224
HUR	224
JABE	225
KABUZ	225
KALTEAN	225
KANPORA, kanpo	226
KASA	226
KONTRA	227
LAIN	227
LAKO [/ Lango]	228
LEKUAN	229
LEPOTIK	229
LEZ	230
MENPE [/ mende]	231
MESEDETAN	232
MODUAN	232
NAHASTEAN	233
NAHIKOA	233
ONDOAN	234
ONEAN	234
ORDEZ	235
ORDUAN, orduko	236
ORDUKO	236
OSTEAN, osteko	236
PAREAN	237
PARTEZ	237
-PE(AN)	238
PEKOAN, PEKORA	238
PENTZUAN	239
PESKIZAN	239
PORASUZ	240
POZEAN	240
PREST	241

PURUZ	241
TRUKE	242
URRUN	242
USTEZ	242
ZAIN	243
ZALE	243
ZEHAR	244
ZORIONEZ, zorionerako	244
8. GRADUATZAILEAK	245
8.1. ATZIZKI GRADUATZAILEAK	245
-KO / -SKO	245
-SKA	245
-TO	245
-TSU	246
-TXU [/ -txo]	246
-TZAR [/ -zar]	247
8.1.1. KONPARAZINOKO ATZIZKIAK	248
-AGO	248
-EGI	249
-EN	249
8.2. BARDINTASUNEZKO KONPARAZINOAK	250
Hain	250
Horren	250
Honen	251
8.3. ERREPIKATZEA	251
8.4. HITZ GRADUATZAILEAK	252
8.4.1. GORENGO MAILAAGERTZEKO	252
Benetan (be)	252
Ezin...-ago	252
Galant	253
Garbi	253
Guztiz	253
Huts	254
Ikaragarri	254
Itzel	254
Makal	255
Ondo	255
Oso	255
Sano	255
Txito	256
Ze(r)	256
Zeharo	257
Zehatz	257
Zein	257
8.4.2. NAHIKOTASUNAAGERTZEKO	257
Antzeko / antzean	257
Moduko	257
Nahiko	258
Samar	258

8.4.3. EZEZTAPENAAGERTZEKO	258
Arean be	258
Bape	259
8.4.4. BESTETARIKOAK	259
Berebiziko	259
Bestelako	259
Egundoko	259
Egundo halako...-rik	259
Erdi	259
Honako, holako, halako...-rik! Honango, holango, halango...-rik!	260
Ikaragarrizko	260
Itzelezko	260
Nagusi	260
Negargarrizko	261
Sekulako	261
Sekula halako...-rik	261
Upealako	261
Zelako [/ zelaseko]	261
9. ADITZA	263
9.1. ADITZAREN FORMAJOKATUBAKOAK	263
9.1.1. ADITZ PARTIZIPIOA	263
9.1.1.1. PARTIZIPIO BURUTUA	263
9.1.1.2. PARTIZIPIO BURUTUBAKOA	264
9.1.1.3. GEROALDIKO PARTIZIPIOA	266
9.2. ADITZA ETA JOSKERAEZAUGARRIEN ARTEKO LOTURAK	267
9.3. ADITZ BEREZIAK	268
9.3.1. EGURALDI-ADITZAK	268
9.3.2. BESTE ADITZ BEREZI BATZUK	269
Agurtu / Agur egin	269
Ahalegindu	269
Ahaztu	269
Aldatu	270
Amaitu	270
Ardura izan	270
Balio izan	270
Begiratu	270
Bildurtu / Bildur izan / Bildurra (emon, sartu)	271
Bultzatu / Bultza egin	271
Burrukatu / Burruka egin / Burrukan egin	271
Damutu / Damu izan / Damututa egon	271
Deitu / Dei egin	272
Dimitidu	272
Egin	272
Ekin	272
Emon	272
Entzun	273
Eragin	273
Eragon	273
Eraso	273

Eretxi	273
Erion	274
Eskertu / Eskerrak emon	274
Etzan (etxun)	274
Eutsi	275
Ezagutu	275
Falta izan	275
Gogaitu / Gogait egin / Gogait eragin	275
Gogoratu / Gogoan izan	275
Gomutau / Gomuta izan	276
Hasi	276
Heldu	276
Igon	276
Ikutu	276
Irakin	277
Iraun	277
Irudi	277
Itxaron	278
Itxi	278
Jardun	278
Jarraitu	278
Jo	279
Karutu / Merkatu	279
Konbidau [/ Gonbidatu] / Konbit (konbita) egin	279
Kostau	280
Lagundu / Lagun egin / Lagun izan	280
Leba izan	280
Loak hartu	280
Luzatu	280
Merezidu izan	281
Neurtu	281
Oratu (Ebatu)	282
Pasau	282
Sakondu	282
Urten	283
9.4. ADITZ LOKUZINOAK	283
AHAL	283
EZIN	285
BEHAR	286
GURA/ NAHI	287
9.5. ADITZAREN MODALIDADE HITZAK	288
AHAL	288
AL	288
ANTZA	289
BIDE	289
EDO	289
EI	289
ETE	290
OHI	291
SEGURU	291

9.6. ADITZ LAGUNTZAILEA	293
9.6.1. EGITE ERA	293
9.6.1.1. ORAIN ALDIA	293
IZAN (Nor, Nor-Nori)	293
EDUN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	295
9.6.1.2. LEHEN ALDIA	297
IZAN (Nor, Nor-Nori)	297
EDUN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	299
9.6.2. BALDINTZA	301
9.6.2.1. BALDINTZA	301
IZAN (Nor, Nor-Nori)	301
EDUN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	303
9.6.2.2. ONDORIOA	305
IZAN (Nor, Nor-Nori)	305
EDUN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	307
9.6.2.3. -KE-DUN IRAGANEKOAK	309
IZAN (Nor)	309
EDUN (Nor-Nork)	310
9.6.3. AHALERA	311
9.6.3.1. ORAIN ALDIA	311
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	311
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	312
9.6.3.2. ALEGIAZKOA	313
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	313
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	315
9.6.3.3. LEHEN ALDIA	317
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	317
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	319
9.6.4. SUBJUNTIBOA	321
9.6.4.1. ORAIN ALDIA	322
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	322
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	324
9.6.4.2. LEHEN ALDIA	326
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	326
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	327
9.6.5. AGINTE ERA	329
*EDIN (Nor, Nor-Nori)	330
EGIN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	331
9.7. ADITZ TRINKOA	333
9.7.1. EGITE ERA	333
9.7.1.1. IRAGANGAITZAK (ORAIN ALDIAETA LEHEN ALDIA)	333
EGON (Nor, Nor-Nori)	333
ERION (Nor-Nori)	336
ETORRI (Nor, Nor-Nori)	337
ETZAN (ETXUN) (Nor)	339
EUTSI (Nor-Nori)	340
IBILI (Nor, Nor-Nori)	341
IZAN (Nor)	344
JARRAITU (Nor-Nori)	345
JOAN (Nor, Nor-Nori)	346

9.7.1.2. IRAGANKORRAK (ORAIN ALDIA ETA LEHEN ALDIA)	348
EDUN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	348
EKARRI (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	351
ERABILI (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	356
ERETXI (Nor-Nori-Nork)	361
EROAN (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	362
ESAN (Zer-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	367
EUKI (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	370
JAKIN (Zer-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	374
9.7.2. BALDINTZA	376
9.7.2.1. IRAGANGAITZAK (ALEGIAZKOAETA ONDORIOA)	376
EGON (Nor)	376
ETORRI (Nor)	377
IBILI (Nor)	378
IZAN (Nor)	379
JOAN (Nor)	380
9.7.2.2. IRAGANKORRAK(ALEGIAZKOAETA ONDORIOA)	381
EDUN (Nor-Nork)	381
EKARRI (Nor-Nork)	382
ERABILI (Nor-Nork)	383
EUKI (Nor-Nork)	384
JAKIN (Zer-Nork)	385
9.7.3. AGINTE ERA	386
9.7.3.1. IRAGANGAITZAK (ORAIN ALDIA)	386
EGON (Nor, Nor-Nori)	386
ETORRI (Nor, Nor-Nori)	387
IBILI (Nor, Nor-Nori)	388
JOAN (Nor, Nor-Nori)	389
9.7.3.2. IRAGANKORRAK (ORAIN ALDIA)	390
EKARRI (Nor-Nork, Zer(tzuk)-Nori-Nork)	390
JAKIN (Nor-Nork)	391
10. EREMU SEMANTIKO BATZUK	393
10.1. DATAK	393
10.2. ORDUAK	395
BIBLIOGRAFIA	399

1. IDAZKERA ARAUAK

1.1. LETRALARRIAK EDO MAIUSKULAK

Letra larriak edo maiuskulak ez dira edozelan erabili behar; badagoz erizpide batzuk, eurai jarraitu beharrekoak. Letra larriak honako kasuetan erabiliko doguz:

1.1.1. Hasieran eta puntuazino-marken ostean

a) Esaldi hasieran eta esaldi amaierako puntuaren ostean:

Bazan behin urruneko herri baten...

Ilunabarra zan. Jente gitxi ebilen kalean. Ekatxa etorren.

b) Bi puntuen ostean berbaz berbako aitamen bat egin, gutun eta antzekoen aurkezpena egin edota lerroz aldatzen danean; bestelako kasuetan ez:

Bizitza halakoxea da: “Dagoanean bon-bon, ez dagoanean egon”.

Lagun maitea: Zer moduz bizi gara?

Gaur itsasoko animalia bi aztertuko doguz:

– Baleak

– Izurdeak

c) Eten-puntuen, itaun-markaren eta harridura-markaren ostean:

Ene bada! Halako ezustekoa zu hemen ikustea! Noiz bueltau zara etxera, ba?

Ez dakit zer esan, ba, neskato... Isilik geratzea ez hobe? Barregarri geratzea baino hobeto bai behintzat!

Halanda be, marka horreek esaldi barruan doazanean euron ostean letra xehez edo minuskulaz idatzi behar da (etenak egiten diranean, esate baterako).

Zuhur ibili ginanok danetarik jan genduan: txokolatea, pastak, pastelak... baina gure ostekoak bape barik geratu ziran.

– Zein da? –itandu eban ateko txirrina entzun ebanean.

1.1.2. Izen bereziak erabilten diranean

a) Bizidunen izen berezietan, hau da, pertsona izenetan, ezizenetan eta animalia izenetan: *Kepa, Julen, Amagoia, Leire... “Txikerra”, “Baltza”, “Azeri”, “Txori”... Hiru, Mendi, Pinta, Bizkor... Holakoetan ez deitso ardura izen horrek mugatzailea eroan arren: Perua, Jesusa (pertsona-izenak), Nabarra, Baltza, Apala (behi-izenak)... Halantxe abere-izen batzuk be, pertsonifikatzen diranean (ipuinetan, alegietan): Lukito, Otsoko...*

b) Mitologiako jainko eta izakien izenetan: *Zeus, Ulises, Ra, Diana... Mari Anbotoko, Perutxo, Euliski, Olentzero... Mugatzaileaz erabilten diran batzuk be bai singularrean:*

Basajauna, Jentila... Baina pluralean erabilten diranean, mitologiako izen arruntok letra xehez idazten dira: *laminak, sorginak, jentilak, basajaunak, prakagorriak, aziak...*

c) Planeta, izar, galaxia eta konstelazioen izenetan: *Lurra, Jupiter, Eguzkia, Andromeda...* Halanda be, *lurra, eguzkia* eta *iretargia* eguneroko hizkeran letra xehez idazten dira.

d) Erreferentzia kardinal hutsak izendatzean: *Iparra, Hegoa, Ekialdea, Mendebaldea, Hego-mendebaldea...* Halanda be, konposatu-barruan edo adjektiboaz lagundurik azaltzen diranean letra xehez idazten dira: *hego-haizea, Pirinioetako iparraldea...*

e) Geografia izenetan: *Bizkaiko golkoa, Sakanako bailara, Oiz mendia, Amazonas ibaia...* Halakoetan lehenengo izena baino ez da letra larriz idazten. Dana dala, izena bera geografia izenaren parte danean dana idazten da letra larriz: *Itsaso Hila, Ozeano Barea...*

f) Estatu, herrialde, uri eta halako leku-izenetan: *Estatu Batuak, Euskal Herria, Markina...* Halanda be, jentilizioak letra xehez idazten dira: *bizkaitarra, italiarra...* nahiz eta *Bizkaikoa, Italiakoa...* be letra larriz idatzi.

g) Leku-izen berezietan: *Carlton hotela, Gurutzetako ospitalea, Foruen plaza, Henao kalea...*, baina *Plaza Barria, Kale Nagusia...* (*Goenkale, Artekale* eta *Barrenkale* lexikalizatu egin dira eta batera idatzi ohi dira). Dana dala, atzerriko leku-izenek beti ez dabe arau hori beteten: *Wall Street, London Bridge...*

h) Pertsona bakarra adierazoten daben kargu eta tituluak aitatzean: *Jordaniako Erregea, Aita Santua, Lehendakaria, Lehen Ministroa, Idazkari Nagusia...* Halanda be, izena zehazten danean: *Hussein erregea, Ibarretxe lehendakaria, Luna kondea...*

i) Egoitza ofizialen eta instituzioen izenak, honeek osorik aitatzen diranean: *Ajuria Enea, Eusko Jaurlaritza, Gernikako Juntetxea, Bilboko Udala...*

j) Erakunde, alderdi politiko eta sindikatuen izenetan: *Emakunde, Gurasoen Alkartea, Herrizaingo Saila...* *Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskadiko Alderdi Sozialista...* *Langile Abertzaleen Batzordea...* Dana dala, erakunde horreen barruko batzordeak letra xehez idazten dira: *Euskera batzordea, EGAbatzordea, Gramatika batzordea...* Bardin erakunde horretako beharginei jagokezan karguak: *euskaltzaina, alkatea, zuzendaria, ministroa...*

k) Lege testuen izenetan: *1988/36 Foru Dekretua, Funtzino Publikoaren Legea...* Halanda be, hain zehatz erabilten ez diranean letra xehea erabiliko da: *dekretu bidez, onartutako legeak...*

l) Egunkari, aldizkari, liburu... izenetan: *Egunkaria, Deia...* *Argia, Elhuyar...* *Bilbo Irribarrez, Orotariko Euskal Hiztegia...* Dana dala, izenburua esaldi bat danean, hasierako letra baino ez da letra larriz jarten askotan: *Esku liburua, Ipuin antzeko alegi mingotsak...*

m) Zientzia eta ikasgaien izenetan: *Medikuntza, Ingeniaritza...* *Euskal Filologia, Kimika...* Halanda be, erabilera arruntean: *medikuntzaren aurrerapenak, fisikako legeak...*

n) Sarien izenetan: *Urrezko Maskorra, Euskadiko Literatura saria, Nobel saria, Oscar saria...* Halakoetan “sari” berbea letra xehez idazten da.

ñ) Entzute handiko jaietan eta erlijino jaietan: *Aberri eguna, Santo Tomas eguna...* *Aste Santua, Gabonak, Gabon Zaharrak...*

o) Santu izenetan: *San Anton, San Balentin, Santa Eufemia, Santa Zezilia...*

1.2. LETRAXEHEAK EDO MINUSKULAK

Letra xehea erabiliko da aitatu ez diran kasuetan. Horrezaz gainera, letra xehez idazten diran izen berezi batzuk be badagoz, lehenago aitaturako kasuez gainera. Halan, urtaroak, hileak eta astegunak letra xehez idazten dira:

*udabarra, udea, udagoiena, negua
urtarrila, apirila, garagarrila, urria...
astelehena, eguaztena, barikua, domekea...*

1.3. PUNTUAZINO-MARKAK

Puntuazino-markak erabiliterakoan (, / ; / . / : / ...), sarritan zalantzak izaten doguz edota behar ez diran lekuetan ipini. Zalantzok argitzeko hona hemen jarraibide batzuk.

Arau orokor lez hauxe esan leiteke: puntuazino-marken aurretik ez da hutsunerik ixten; atzetik, ostera, bai. Ikusi daiguzan orain markok banan-banan.

1.3.1. Koma (,)

Geldiune laburra marketan dau.

– Enumerazinoetan, berbak parekoak diranean eta alkarren atzean dagozanean esaldi berean:

Aste Santuan Elizondo, Erratzu, Amaiur eta Zugarramurdin *egon gara*.
Danetarik jan behar da: frutea, okelea, arraina, zerealak, eta abar.
Etxea janzteko sofak, oheak, mahaiak... *erosi ditue azoka txiki horretan*.

Horrelako enumerazinoetan sarritan erabilten dogu *eta* juntagailua, baina horren aurrean ez da komarik ezarten normalean. Halanda be, komaz bereizten diran esaldien artean *eta* azaltzen bada, horren aurretik koma erabili leiteke.

“Alperrak, zelanguak dirian kuruminuak, botaten ditube etxeti, *eta* zeinbat gauza miragarri irakurten dira, dinuenez, erle biarginak etxe barruban egiten dituben gauzeen ganian!” (J.A. Mogel)

Inoiz koma artean be azaltzen da *eta* bera bakarrik, batez be atzean juntagailu edo lokailuren bat azaldu ezker.

“Gutziz artega ta birbizturik egoan, ezin zan inun gelditu, ezin artu eban ezertarako astirik, *eta*, orduak baino lenago Josepari bere logelan sartu jakon, oraindino bere lagun au lotan egoala.” (D. Agirre)

Bestalde, *eta* juntagailuaren atzean be ipini leiteke koma kasu batzuetan; posposizino edo hitz atzekari erabilera dauenean, hatan be. Hori gehienetan, kausa edo zergaitziko zentzua dauenean jazoten da.

Gose naz eta, ezin dot lorik egin. (= gose nazan ezker / nazalako)
Kantsauta egoan eta, ohera joan zan. (= kantsauta egoanez / egoalako)

– Menpeko esaldietan, menpekoa nagusiaren aurretik doanean. Halanda be, ez dogu komarik ipini behar honako hiru kasuotan: menpekoa nagusiaren ostean doanean, menpekoa osagarri zuzena danean eta galdegaia danean.

Berandu bada be, *deitu eidazu heldu zarala jakinarazoteko*.
Ahal izan ezker, *bihar eguerdirako helduko gara etxera*.

– Bokatiboa danean:

Aupa, Miren. / Kaixo, Miren. / Agur, Miren.

Jaun-andreak, *ondo etorri guztioi!*

Entzuizu, Maitane, ekarri eidazu neuri be beste pintxo bat, mesedez.

– Aposizinoetan, hau da, esaldian emoten dan informazioa zabaltzeko eta zehazteko beste esaldi bat tartekatzen danean, hau koma artean idazten da normalean (koma horreen ordez parentesiak edo marra luzeak erabilten ez badira). Halan, komak erabiliko doguz gehitzen dan informazioak esaldiaren hariari jarraitzen badeutso.

Bihar, apirilak 7, egingo da batzarra iluntzeko zortziretan.

Pello, Enekoren laguna, Panamara joan da GKE bategaz.

– Esaldi barruan dagozan lokailu batzukaz: *baina, barriz, ostera, dana dala, hagaitik, halan - da be...*

Gure etxean, baina, nork agintzen dauela uste dozu?

Ni beti egoten naz etxean sartuta eta zu, barriz, etxetik agertu be ez.

Andrea karta-jokoan egoten da lagunakaz; gizona, ostera, beluetan etorten da tabernatik.

– Testu-antolatzaile batzuk koma artean erabilten dira barru posizinoan, eta esaldiaren aurrean edo atzean azaltzen diranean, koma bidez bereizten dira gainerako testutik: *izan be, azken baten, berba baten, hobeto esanda, labur esanda, hain zuzen be, hatan be, adibidez, esate - rako, besteak beste...*

Han egona da, izan be, gure neskatoa.

Azken baten, berak gura dauena egingo dau.

– Posposizino edo atzekari modura erabilten diran juntagailu eta antzekoen ondoren be bai: *eta, baina, ezeze, barik, behar rean, baino / baizen...*

Ordua da eta, mogidu zaiteze lanera.

Asko daki baina, dakiana ondo esaten ez dau ikasi.

Telebistara barik, ohera joateko ordua da.

Batera eta bestera ibili beharrean, hobe zeunke etxean geldituko bazina.

– Alborakuntza kasu batzuetan: *bai..., bai...; ez..., ez...; zein..., zein...; eta abar.*

Bai hemen, bai Ameriketara txakurrak oinutsik.

Ez gaur, ez bihar, ez etzi, ez daukat zugaz berba egiteko asmorik!

Dala hemengo, dala kanpoko, fina izan ezker bardin deutso.

– Aditza (osorik edota laguntzailea baino ez) isilpean ixten danean, esamoldeetan eta beste-lako esaeretan batez be, aditzaren ordez koma sartzen da:

Zer ikusi, ha ikasi.

Zelan irabazi, halan irazi.

Arotzaren etxean, zotza burduntzi.

– Zenbakien zatiak bereiztean:

p-ren balioa 3,1416 da.

Biologiako azterketan 8,4 atera dot, ia-ia bikain.

– Zuzenbideak:

Enumerazioak edo zerrendak idaztean *eta* edo eten-puntuaren aurretik ez da komarik idazten, baina bai *eta abar* esapidearen aurretik:

**Jesus, Maria, eta Jose!*

Jesus, Maria eta Jose!

*Rona, tekila,... *asko gustetan jako.*
*Nekane, Saioa eta abar *heldu dira.*

Rona, tekila... *asko gustetan jako.*
Nekane, Saioa, eta abar *heldu dira.*

Menpeko esaldietan, menpekoa nagusiaren aurrean dagoanean eta honen galdegaia ez danean, koma jarten da. Berbaz be eten edo pausa antzeko bat egiten da holakoetan:

*Ezer erabagi aurretik *trankil hartu.*
*Inon egotekotan *etxean egongo da.*

Ezer erabagi aurretik, *trankil hartu.*
Inon egotekotan, *etxean egongo da.*

Bokatiboak koma artean idatzi ohi dira:

**Entzuin hi, hator hona!*
**Ondo egin dogu lo Maite?*

Entzuin, hi, hator hona!
Ondo egin dogu lo, Maite?

Subjektuaren atzean ez da komarik jarten normalean:

**Nik, ez dot horretan sinesten.*
**Hori, alper hutsa da.*

Nik ez dot horretan sinesten.
Hori alper hutsa da.

Batzuetan, ostera, esaldi nahasiak sortzeko arriskua dago. Halakoetan, koma ipini beharrean, emon gura deusagun esangurearen arabera, esaldiaren ordena aldatzea edota subjektu eta aditzaren artean berba osogarriren bat sartzea izan leiteke urtenbiderik onena.

↓*Mikel abadeagaz etorri da.*
(Mikel = abadea, ala ez?)

↑*Mikel abadeagaz etorri da X.*
↑*Abadeagaz etorri da Mikel.*
↑*Mikel, lehen, abadeagaz etorri da.*

1.3.2. Puntu eta koma (;)

Komak baino geldiene luzetxuagoa eta markatuagoa adierazoten dau.

– Enumerazioetan, batez be antolatzaileak (*batetik, bestetik...*) idaztean:

Ikastaroon helburuak bi dira: batetik, bizkaieraren ezaugarri nagusiak zehaztea; bestetik, bizkai euskeraz idatzi dabenen testuak ezagutzea.

– Izen-zerrendak idaztean bakotxaren ondoan informazino osogarria zehazten danean:

Atzo ezagutu nituan lankide izango dodazanak: Miren Azpillaga, Atzerri-ordezkarria; Jon Zubiaur, informatikoa; eta Xabier Agirre, idazkaria.
Han alkartu ginan, beste batzuen artean, Andere Iturbe, Zallakoa; Ainara Arrieta, Durangokoa; eta Maite Ipiña, Zeberiokoa.

– Izenak, sintagmak edo esaldiak bereiztean, zatien barruan koma erabili danean:

Batzuk iraindu egin nabe; beste batzuk, horreen artean zure anaiak, jo egin nabe.
“Ez naz ni Jauna; abarkak oinetan, txapel bat buruban, gerrestuba gorputzian; au da nire apaindurija guztija (...).” (J.A. Mogel)

– Gauza beraren inguruko kontrako ikuspegiak adierazotean (esaldi laburretan koma ipintea be nahikoa izan leiteke):

Ariketa hau zuzen dago; beste hori, ostera, oker.
Hori ez da egia, ez; itzelezko guzurra da.

– Juntagailu edo lokailu bidez lotuta ez dagozan esaldi bi bereiztean:

Bihar ez naz beharrera joango; gorputzaldi txarra daukat.
Hegazkinak ordubetean egiten dauena egiteko autobusak 11 ordu behar ditu; bidaia gogorra baina interesgarria da.

– Lokailu batzukaz aurrekoagazko etena handitxua danean: *dana dala, halanda be, ezpabe - re, ostera, osterantzean / ostean, halanda ze, hagaitik, izan be, zegaitik ze...*
Oraintxe armozau dot; halanda be, gerotxuago hamaiketako egin beharko da.
Leku horretan bizimodua ez da karua; halan, jateko, edateko eta lo egiteko, lagun bakotxeko, eguneko 25 euro baino gitxiagogaz nahikoa dozu.
Ez ahaztu ogia ekartea; ezpabere atzera joan beharko dozu bila.
Egindakoa eginda dago; hagaitik ez dago zeresanik.

1.3.3. Puntua (.)

Geldiune luzea marketan dau. Halan, puntuaren aurretik jarten dana esangura osoko esaldia izaten da. Esaldiaren amaiera marketako erabilten da.

– Esaldia amaitzen danean (honako kasuetan izan ezean: izenburuetan, esaldia itaun-markaz edo harridura-markaz amaitzen danean eta eten-puntuak erabilten diranean):
Bakioko errepidea konpontzen dabilz aspaldian.
Auzokoek etxean eukien sugea desagertu egin ei da.

– 1.000 zenbakia eta hortik gorakoak idaztean (urteak, telefono-zenbakiak... izan ezean) eta zenbaki ordinalakaz *-garren* atzizkia adierazoteko (ordinalak letraz adierazotean, ostera, *-garren* atzizkia osorik idatziko da):
15.000 euroko saria emon dabe loterian.
2010. urterako hotela eginda egongo dala jakinarazo dabe arduradunek.
Hogeigarren mendean be halakoak hainbat izan ziran Euskal Herrian.

– Laburdurak adierazotean (siglak eta nazinoarteko unidadeen laburdurak izan ezean): *adib., g.b., jn., or. ...*
Bitxiak, erlojuak, e.a. ostu ditue horretan dendaorretan.
J.M. Barandiaranek dinoanez, aztarna arkeologiko horreek K.a.koak izan leitekez.

1.3.4. Bi puntuak (:)

Geldiune luzetxua marketan dabe eta azalpen bat emon aurretik erabilten dira. Bi puntuek esaldia ez dala amaitu adierazoten dabe, ostean mezua zehaztu egiten da.

– Zerrendak, adibideak edo azalpenak emotean (azalpen osogarriak beste lerro baten antolatzten diranean, lerro hasieran letra larria idazten da):
Beharra nahikoa euki dogu egunokaz: etxea atondu, erropak garbitu...
Hurrengo batzarrean honako puntuok argitu gura dodaz:
a) Teilatuaren konponketa.
b) Igogailuetan batzen dan zikinkeria.

– Bigarren esaldiak lehenengoa zehaztu edo argitzen dauenean, tartean jarten da:
Ezin izan dozu ezer gehiago egin: ahal izan dozuna eta gehiago egin dozu.
Gaur egunekorik ez dot irakurten normalean: klasikoak dodaz gogoko.

– Ideia bat azaltzeko danean:
Irakaskuntza asko aldatu da: lehen, teoritik praktikara joten zan; gaur egun, prak - tikaren bitartez irakasten da teoria.

- Kausa-ondorio erako lotura adierazoten danean:

*Minbizia eukala esan eutsien: bertan behera itxi zituan beharra eta familia.
Zaldi gainetik jausi zan: beso biak eta ezkerreko hankea hausi zituan.*

- Berbaz berbako aitamenak egitean (ostean kakotxez eta letra larriz hasten da aipua):

*Guztiz haserratuta zera esan eustan: “Lotsabako hutsa zara”.
Zeuk be hurrengoan hauxe esan: “Sartenak lapikotxuari, eperdi baltz”.*

Berbaz berbakoak ez diran aitamenak markaukeran be bi puntuak ipinten dira eta aipua letra larriz hasten da, baina ez da kakotxik ipinten.

- Gutunetan, hasierako agurretan (ostean letra larriz hasten da gutuna):

*Jaun/andre agurgarria:
Guraso maiteak:*

- Orduak zenbakiz adierazotean, orduen eta minutuen artean:

*Egunero altzetan naz 5:00ak inguruan unibertsidadera sasoi zeltzeko.
Bilborako autobusa ordu laurenero daukagu: goizeko 5:30ean hasi eta gaueko
22:00ak arte.*

1.3.5. Eten-puntuak (...)

Zeozelako geldiunea marketan dabe. Emoten dan informazioa osotu barik edota ostekoa jakintzat emoten danean erabilten dira.

- Enumerazioetan *eta abar* egituraren parekoa danean, falta dan zatia jakintzat emoten dala-ko edota hiztunak bere jarduna eten egiten dauelako:

*Hamaikatxu agiri-mota behar izaten dira halakoetan: eskabideak, ziurtagiriak...
Urrunagara joan ginan eta otarrainak, otarrainskak, lanpernak... jan genduzan.*

- Bildurra, zalantza, misterioa edo antzeko zeozer marketako aitamenak zehaztu barik itxi-keran:

*Bai, ointxe urten dau zererantz... Urkiolarantz.
Eta etxera sartu zanean... lapurra agertu jakon ate ostetik.*

- Berbaz berbako aitamenak osorik idatzi beharrean informazioa isilpean ixten danean (isil-
pean ixten dan zatia esaldi barrukoa edo amaierakoa bada, eten-puntuak parentesi artean ida-
tzi behar dira, baina esaldi hasierakoa bada ez da parentesirik behar):

*Peru Abarkaren ahoz hauxe dinosku Mogelek: “... Ez deust ezek gorroto ta iguin
geijago emoten nekezale edansarri ta ardaozaleegijak baino”.
“Au gaiti olgetiaren gainian berba egiten danian, alderatu biar dira uts egiteko eski-
na bijak (...). Bata laarregija, ta bestia gitxijegija.” (Fra Bartolome)*

- Zuzenbideak:

Eten-puntuen ostean ez da punturik idatzi behar esaldia bertan amaitu arren, horreek paren-
tesi artean ez badagoz behintzat.

**Hainbat lekutan bizi izan da:
Londresen, Parisen, Pragan... .*

*Hainbat lekutan bizi izan da:
Londresen, Parisen, Pragan...*

1.3.6. Harridura-marka (!) eta itaun-marka (?)

Harridura-markak harridura, miresmena edo zurtasuna adierazoten dau. Itaun-markak, barriz, itauna, galderea edo preguntea. Adiera bereizia daukien arren, erabilera aldetik antzekoak dira.

– Esaldiaren amaieran jarten dira:

Txomin, aspaldiko! Zelan bizi gara?

Non sartu ete da gure Peru? Hau da hau markea, gero!

– Harriduraz egindako itaunak marketako marka biak batera ipini leitekez (beti be lehenengo harridura-marka eta gero itaun-marka), lar erabilten ez bada be:

Zelan gura dozu nik laguntzea zeuk be ezer egiten ez badozu!?

– Zuzenbideak:

Marka honeen atzean koma edota puntu eta koma ipini leiteke, baina sekula be ez puntua. Halanda be, marka honeen ostean kaxotxa edo parentesia ipini ezkerro, atzean puntua idazten da.

Non itxi dozuz liburua?, eta amantala?

Hain zurtuta egoala ikusikeran zera itandu eutsan: “Ez zara nigaz akordetan, ala?”.

**Nor izan da deitu dauena?.*

Nor izan da deitu dauena?

**Kokoteraino nago zuekaz!.*

Kokoteraino nago zuekaz!

1.3.7. Parentesia ()

Esaldian emoten dan informazioa zehaztu eta zabaltzeko beste esaldi bat sartzen danean erabilten da.

– Parentesien ordezkak edo marra luzeak be erabili leitekez. Parentesiak erabiliko doguz gehitzen dan informazioa gehigarria baino ez bada. Halan, azalpen edo xehetasun laburrak, bi-hiru berbakoak, marra artean baino hobe da parentesi artean idaztea. Adibidez: zenbaki bidezko zehazpenak, adina, probintzia edo leku baten non dagoan...

200 euro (33.277 pezeta inguru) ordaindu dau praka ziztrin batzukaitik.

A. Agassik erraz irabazi eutsan P. Sampras amerikarrari (6-3, 6-4 eta 6-2).

Ikastarorako matrikulazio epea (garagarrikoa baino ez) zabalik dago.

Parentesi artean doan ez dau zertan komunztatu aurrekoagaz.

Biarritzen (Lapurdi) egingo da aurten surf txapelketako finala.

Oliteko jauregian (Nafarroa) ez dago sasoi bateko lorategi ederren arrastorik.

– Parentesi artean, esaldi osogarriez gain, beste zeinu honeek be sartu leitekez: (...), (!), (?). Lehenengo berbaz berbako aitamenean jatorrizko testuaren zatiren bat isilpean ixten danean erabilten da, bigarrena idazleak jari ohi dau horren aurretik dagoana harrigarria iruditzen jakola marketako, eta azkena be idazleak jarten dau esan dauenari buruzko zalantzaren bat badau.

– Zuzenbideak:

Parentesien aurrean ez da komarik ez bestelakorik ipinten; ostean bai ipiniko da, parentesiak kenduta zeinu hori beharrezkoa dan kasuetan. Ipinie ezkerro, ixteko parentesiaren oste-ostetxuan idatzi behar da.

**Edurra zala-eta, (bide guztiak itxita egozan) ezin izan ginan joan.*

Edurra zala-eta (bide guztiak itxita egozan), ezin izan ginan joan.

Esaldiaren antolamentua zaindu egin behar da bat-bateko etenik egin ez daiten. Esate baterako, sarritan *-(r)en* eta *-(e)ko* atzizkidun berbak eten egiten dira parentesiakaz; dana dala, gehienetan nahikoa da parentesia lekuz aldatzea esaldi ulergarriagoa egiteko.

↓ *Istripuaren ostean Heathrow-eko (Londres) aireportua itxi egin eben.*
↓ *50.000 pezetaren (300 euro) truke saldu eban bizikletea.*

↑ *Istripuaren ostean Heathrow-eko aireportua (Londres) itxi egin eben.*
↑ *50.000 pezetaren truke (300 euro) saldu eban bizikletea.*
↑ *50.000 pezetaren truke saldu eban bizikletea (300 euro).*

1.3.8. Marra luzea (–)

Esaldian emoten dan informazioa zehaztu eta zabaltzeko beste esaldi bat tartekatzen danean erabilten da.

– Komen edo parentesien orde ez erabili leiteke. Marra luzeak erabilten dira gehitzen dan informazioa zeharka emoten danean.

Ipar Euskal Herriko hiru probintziak –Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa– *eze-zagunak dira hegoaldeko askorentzat.*

Athleticeko hainbat jokalaria –Alkiza eta Guerrero, besteak beste– *lesionauta ei dagoz.*

– Alkarrizketetan erabilten da solaskide bakotzak dinoana bereizteko. Hiztun bakotxaren aitamenaren hasieran jarten da, eta aitamen horreen artean kontalariaren eretxia sartu ezker, hori be marra artean idatzi behar da.

– *Zenbat dauka gaur hileak?*

– *Neuk be ez dakit ze egunetan bizi nazan.*

– *Zuekaz egin behar dot berba –esan eban zuzendariak urduri.*

– *Zer da, ba?* –*itandu eutsan ikasle batek–, ez da gure irakaslea etorri, ala?*

Halanda be, hiztunaren izena adierazoten dan antzezlan-idatzietan... ez da marra luzerik idatzi behar, J.A. Mogelen *Peru Abarkaren* pasarte honetan ikusten dan lez:

PERU. Jangoikuak egun onak emon daijozala.

MAISU JUAN. Bai zuri bere adiskidia.

– Zuzenbideak:

Marra luzearen aurrean ez da komarik ez bestelakorik ipinten; ostean ipiniko da, marrak kenduta zeinu hori beharrezkoa izan ezker. Ipintekotan, iteko marraren ostetxuan idatzi behar da.

**Egunkari batzuk dirala eta*, –El Correo eta El País tartean–
zurrunmuru hori are gehiago zabaldu da.

Egunkari batzuk dirala eta –El Correo eta El País tartean–,
zurrunmuru hori are gehiago zabaldu da.

Esaldiaren antolamentua zaindu egin behar da eta ahal dala ez da bat-bateko etenik egin behar.

↓ *Azterketa honeek –EGA, HE...– gainditzeko hizkuntza ondo jakin behar da.*

↑ *Azterketa honeek gainditzeko –EGA, HE...–, hizkuntza ondo jakin behar da.*

1.3.9. Marratxua (-)

– Izen bereziak edo berba ezezagunak deklinatzean erabiltzen da (kakotxen bidez edo letra etzanaz berezita ez dagozanean). Dana dala, berba bat ezaguna edo ezezaguna dala esatea subjektiboa da kasu askotan. Halan ba, batzuetan norberak ikusi behar dau marratxua ipini edo ez. Erizpide moduan hauxe esan daiteke: berbea non amaitzen dan eta atzizkia non has-ten dan argi geratzen bada, marratxu barik idatzi; baina zalantzaren bat sortzeko arriskua egon ezkerro marratxua ipini.

W. Shakespeare-en *liburu gehienak irakurrita daukadaz.*

Aktore gazte askoren amesa Hollywood-en ospea irabaztea da.

– Errepikapenetan, lehenengo berbea deklinatuta ez dagoanean: *astiro-astiro, barri-barriak, poz-pozik...* baina *mendiz mendi, etxerik etxe...*

Ibiltako aro eder-ederra dago.

Itsua-itsuan *sinesten dau esaten deutsien guztia.*

– Alkarketa batzuetan:

Gure seme-alabak aitita-amamen baserrira joan dira.

Bertsolari-txapelketako *finala astegoien honetan izango da.*

– Onomatopeien egitura konposatuetan:

Ikusi-makusi, zer ikusi?

Etxe ondoko pozueta ebilen plisti-plasta zapata barriakaz.

– Idatzizko testuetan, lerro amaieran berbea osorik sartu ez eta lerroz aldatu beharra egon ezkerro, marratxua erabili behar da. Silabaka zatitzea gomendatzen da. Hitz alkartuen kasuan, marratxua lerro amaieran suertau ezkerro, hurrengo lerroaren hasieran barriro idatzi behar da.

An-dre-a, gi-zo-na-ri, u-me-a-ren, e-txe-ra-ko...

1.3.10. Marra makurra (/)

– Leku-izenak hizkuntza bitan emoten diranean (alboetan hutsunerik itxi barik):

Arrasate/Mondragón

Vitoria/Gasteiz

– Bertsoak eta olerkiak ohiko ahapaldietan idatzi beharrenean hitz lauz idaztean ahapaldi bakotxa bereizteko erabiltzen da, bai aurrean, bai atzean hutsunea dala (hasieran eta amaieran ez da marrarik idatzi behar):

“Gazte nintzala talde bat gendun / euskaldun jatorra eta fededun / hartu genduan erabagia / jarteko gurutz paregabia / esan ta egin / jarri genduan Atxeli mendin / herri osoan ikusi zedin” (B. Enbeita)

– Legeen eta abarren zenbakien artean:

1.654/2002 Foru Agindua, *apirilaren 18koa, euskal poneya-pottoka arrazako abere aukeratuak erosteko aparteko laguntzak emon dituana da.*

Hau guztiau Administrazioagazko Auzi-Eskumena arautzen dauen garagarriaren 13ko 29/98 Legeagaz bat dator.

1.3.11. Kakotxak (“”, ‘ ’, « », < >)

Kakotxak edo komatxuak barruan aitatzen dana marketako erabilten dira.

– Berbaz berbako aitamenak idatzikeran:

“Etxeen prezioak gora egin dau nabarmen” *da gaurko egunkariko titularra.*

“Ikasi dau zaharrak, irakatsita beharrak” *dino esaera zahar batek.*

– Komunikabide idatzietan, kazetariaren kontaera objektibo baten nonoren berbak diran-diranean jasokeran:

Enpresa alkartearen buruak “alperreko eztabaida gitxiago eta pragmatismo handiagoa” *eskatu deutse politika-alderdiei ekonomia bizkortu ahal izateko.*

– Ezizenak idaztean:

Jose Maria Agirre, goitizenez “Lizardi”, *olerkari ezaguna izan genduan.*

Patxiku “Eskuluzea” *oin be lapurretan harrapau ei dabe.*

– Egunkari, aldizkari, liburu, denda, eta abarren izenburuak idaztean (halanda be, holakoe-tan letra etzana be erabili leiteke):

Anderrek “Golf TDI” *bat erosi dau.*

“Medicus mundi” *erakundeak esan dauenez, Afrikako iparraldean HIESak hartu -tako gaixoak gitxitu egin dira.*

– Beste hizkuntzetatik zuzenean hartutako berbak aitatukeran (halanda be, erderazko esake-rak eta adiera aldatuta daukien euskerazko berbak letra etzanaz be idatzi leitekez):

Gure Joxe “gentelman” *itzela da, gero!*

Han joian bere kamioitzarragaz “highway”*an.*

– Herri-berbakeran, berbak ez-estandarrak dirala zeozelan marketako:

“Porroak” *erreten ikusi ditue eskolako komunetan.*

Aurreko zapatuan upealako “atxurra” *harrapau eban lehengusuaren ezkontzan.*

– Esamolde ironikoak edo esangura bikotxeoak adierazokeran:

Negozio “ederra” *eginda daukie herri turistiko batzuetako udalek!*

Bai, bai, gu “paradisuan” *bizi gara: beti behar eta behar.*

– Zuzenbideak:

Kakotx artean doana deklinatu behar dogunean, deklinabide-marka marrarik eta tarterik itxi barik gehitzen da.

*“Argia” tik *hartu dot artikulu hau.*

“Argia”tik *hartu dot artikulu hau.*

*“Lauaxeta”-ren *artikuluak guztiz ezagunak izan ziran bere sasoian.*

“Lauaxeta”ren *artikuluak guztiz ezagunak izan ziran bere sasoian.*

Berbaz berbako aitamenak jasoten diranean, kakotxak itxi ostean ipini behar da jagokon zeinua: koma edo puntua, normalean.

**Urdaibaiko alkarteak adierazo dauenez* “zurtuta gagoz obrakaz.”

Urdaibaiko alkarteak adierazo dauenez “zurtuta gagoz obrakaz”.

Esaldiaren antolamentua zaindu eta bat-bateko etenik ez egiten ahalegindu behar da. Kasu honetan, kakotxen bidez marketan dan berbaz berbako aitamena eta zehar estiloaren bidez adierazotakoa ez nahastea komeni da.

*Azken egunotako egoera dala eta,
“udala eragozpen ugari jarten”
dabilela salatu eben herritarrek.

Azken egunotako egoera dala eta,
“udala eragozpen ugari jarten
dabil”, salatu eben herritarrek.

1.3.12. Apostrofoa (’)

Letraren bat isilpean itxi dala adierazoten dau.

– Batez be *eta* juntagailuaren *t’* laburdura da ezaguna, eta horren barruan *t’erdi* egitura:
Agur t’erdi:

– Deitura batzukaz erabili izan da, baina gaur egun erabilera hori ez da bape zabaldu. Halanda be, atzerriko izen batzukaz erabilten da oraindino.

Agirre’ tar Peruk *datorren domekan egingo dau jaumartzea.*
O’Neil markako erropak janzteia asko gustetan jako.

– Zuzenbideak:

Lehenago orduak adierazoteko *ordu bat t’erdi, ordu bi t’erdi...* formak erabilten ziran arren, gaur egun osorik idazteko joera nagusitu da. Dana dala, *t’erdi* irakurten eta esaten da ahoz.

↓ Bost t’erdiak *jo dabe.*

↑ Bost eta erdiak *jo dabe.*

↓ *Bart* zortzi t’erdietan *sartu naz*
ohera, eta ointxe arte!

↑ *Bart* zortzi eta erdietan *sartu naz*
ohera, eta ointxe arte!

1.4. ALKARKETA

Askotan, alkarketa bidez berba barriak sortukeran, aldaketa fonetikoak jazo ohi dira, batez be izenakaz, eta horreek kontuan hartu behar dira hitz alkartuak idazteko orduan.

Basurde (< baso + urde)

Iturburu (< iturri + buru)

Betule (< begi + ule)

Zapaburu (< zapo + buru)

Horrezaz gainera, lexikoan eboluzinoa ikusten da eta lehen berba bi zirana gaur egun berba bakartzat hartzen dogu, esaterako, *odoloste, sagardo, udaletxe, uriburu...* Halan ba, hemen emondako idaztarauak aurrerago aldatu egin leitekez. Momentuz, behintzat, hitz alkartuak hiru erataro idatzi leitekez: lotuta, bereiz edo marratxuz, baina batzuk marratxuz zein bereiz idazteko aukera dago.

LOTUTA

- ⇒ **Jarleku** (aditzoina + izena) erakoak:
ikasgela, jokabide, sortalde, geltoki...
- ⇒ **Aldakatz** (aditzoina + izenondoa) erakoak:
moldakatz, sinestezin, ulerterraz...
- ⇒ **Udabarri** (izena + izenondoa) erakoak:
bihotzerre, gizagaixo, azkordin, minbera...
- ⇒ **Odolustu** (izena + aditz partizipioa) erakoak:
aurrekusi, itxurabarritu, indargaldu, azpimarkatu...
- ⇒ **Lauburu** (zenbatzailea + izena / izena + zenbatzailea) erakoak:
begibakar, ahobiko, bostortz, ehunzango...
- ⇒ **-bako, -dun, -gile, -gin, -gintza, -zain, -zaintza, -zale** atzizkiak:
lotsabako, dirudun, ongile, behargin, etxegintza, umezain, erizaintza, neskazale...
- ⇒ **-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde**:
agintaldi, zerbitzuburu, legegizon, zerbitzugune, baliokide, kalekume, sailburuorde...
- ⇒ **ber-/ bir-, des-, ez-, sasi-** aurrizkiak:
berrikusi, desagertu, ezezagun, sasijakintsu...
- ⇒ **aurre-, azpi-** eta **gain-** daukienak lehen osagaitzat:
aurrekontu, azpiegitura, gainsoldata...

BEREIZ

- ⇒ **Aposizinoak**:
Oiz mendia, Larramendi ikastola, Anaiak alkartea, D eredia...
Jaun zuzendaria, Andere kontseilaria, Maisu Juan, Izeko Madalen...
- ⇒ **Egin, eragin, emon, hartu, izan** eta **edun (izan)** aditzakaz osotuak:
behar egin, on egin, barre eragin, min emon, parte hartu, bildur izan, behar izan...
- ⇒ **Etxez etxe** eta **mendirik mendi** lakoak (lehen osagaia deklinatuta, bigarren ez):
aurrez aurre, mendiz mendi, kalerik kale, bazterrik bazter...
- ⇒ **Egin barri** erakoak:
esan barri, hasi barri, etorri barri, amaitu barri...
Baina, ezkonbarri, jaiobarri, mezarbarri...
- ⇒ **Posposizino** edo **hitz atzekariak**:
mahai gainean, esku artean, etxe aurretik, fax bidez...
Baina, nazinoarteko, zuzatzarte, eskolaurre...
- ⇒ **Bila, eske** edo **falta** edo euren ereduak daukiezanak bigarren osagaitzat:
ur bila, diru eske, lo falta...
- ⇒ **Euskal, erdal, giza, itsas** daukienak lehen osagaitzat, aspaldikoak ez badira (1):
euskal gizartea, erdal literatura, giza adimena, itsas garraioa...
Baina, gizalege, itsasontzi, itsasgizon...
- ⇒ **-ia** letraz amaiturik **-a** organikoa galdu dabenak (2):
bidai agentzia, biologi azterketa, ortografi arauak...
- ⇒ **Aditzoina + atzizkia + izena**:
alfabetatze ikastaroa, batze lana, kanporatze saioa...

(1) Gaur egun, alkarketa barriak egin behar diranean, ez dago arau fonetiko zaharrak zertan jagon. Halan:

*EAEko unibertsital garraioa.
*EHNE nekazal sindikatua.

EAEko unibertsidade-garraioa.
EHNE nekazari(tza)-sindikatu.

(2) Alkarketako lehenengo osagaia *-ia* amaieraduna danean, *-a* letraz edo hainbarik idaztea aukeran dago: *ginekologi(a) saila, biologi(a) azterketa...*

Osterantzeko *-a* organikoak ez dira galtzen alkarketan. *-a* organikodun berben artean hurrengo seiretan baino ez da onartzen alkarketan *-a* hori kendu ahal izatea: *burdina, eleiza, hiz-kuntza, kultura, literatura, natura.*

Idazkerari jagokonez, amaierako *-a* kentzen danean, hitz alkartua banan idatziko da, eta *-a* gordeten danean, ostera, bereiz zein marratxuaz: *hizkuntz eskola // hizkuntza(-)eskola...*

Natur zientziak *asko gustetan jataz.*

Kultur etxean *hainbat ekitaldi atondu ditue ingurugiroa babestearen alde.*

Gainerako kasuetan *-a* hori gorde egin behar da.

*Hezkuntz arloan *lan egitea gatxa be gatxa da.*
*Bankuaren finantz egoera *eskasa da.*

Hezkuntza arloan...
... finantza egoera...

MARRATXUZ

- ⇒ **Gorri-gorri**-ren moduko errepika indargarriak:
labur-labur, bene-benetan, bihotz-bihotzez, hasiera-hasieratik, itsu-itsurik...
- ⇒ **Apurka-apurka** lako errepikak (bi osagaiak atzizki berbera):
astero-astero, astiro-astiro, banan-banan, kontuz-kontuz, polito-polito...
- ⇒ **Seme-alabak** eta **zuri-gorri** erakoak:
andra-gizonak, neba-arrebak, zeru-lurrak, joan-etorria, gitxi-asko...
- ⇒ **Parra-parra** eta **plisti-plasta** modukoak:
bor-bor, mara-mara, kili-kolo, dinbi-danba...
- ⇒ **Amorebieta-Etxano** erako leku-izenak (1):
Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Abanto-Zierbana, Etxarri-Aranatz, Gamiz-Fika...

(1) Leku-izenak bi hizkuntzatan emoten diranean, ez ditugu marratxuaz lotuta idatziko, marra makur batez banatuta baino.

*Arrasate-Mondragón
*Lizarra-Estella

Arrasate/Mondragón
Lizarra/Estella

Siglak, ostera, bi hizkuntzatan emoten diranean marratxuaz lotuta emongo ditugu.

BEZ-IVA
EAJ-PNV

MARRATXUZ ZEIN MARRATXU BARIK¹

⇒ **Eguzki(-)lore** modukoak:

lan(-)hitzarmena, eskabide(-)orria, merkatari(-)mundua, osasun(-)egoera...

⇒ **Kale(-)garbitzaile** modukoak (1):

Egileak: *odol(-)emoile, euri(-)neurgailu...*

Ekintza: *adar(-)jote, behar(-)eskeintza...*

Jarduna: *ate(-)joka, bide(-)konpontzen...*

(1) Berba biak maiuskulaz idazten diranean marratxu barik idaztea gomendatzen da:

Eusko Jaurlaritza

Garraio Zuzendaritza

Foru Aldundia

Ogasun Saila

1.5. ERATORPENA

1.5.1. Atzizkiak eta aurrizkiak

Hitz eratorriak sortzeko atzizkiak eta aurrizkiak hartzen daberen berbearen lotuta idazten dira.

Hona hemen adibide batzuk:

askatasun, irakasle, arduradun, erizaintza...

berrantolamentu, desbardindu, ezjakintasun, sasimaisu...

1.5.2. Atzizki berezi batzuk

Atzizki horreezaz gainera, jokaera bikotxa daukien atzizki batzuk dagoz, eta kasuaren arabera lotuta edo bereiz idazten dira.

Bako

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu. Halan idatziko da adjektibo modura darabilguzan berbetan: *amaibako, buru - bako, odolbako, zuztarbako...*, eta lexikalizatutzat emoten doguzan beste batzuetan: *hainbako...*

Dana dala, kontestu librean banan idatzi behar da: *eperdi bako, ezer bako, indar bako, esan bako, ondu bako...*

Gura / Nahi

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu: *azkura, barregura, handigura, logura, bizinahi, esanahi...*

Dana dala, aditz lokuzinoa danean banan idatzi behar da: *etorri gura dot, esan nahi dau, jakin gura baleu...*

¹ Hemen sartzen dira, bereziki, idazleek eta hiztunek kontestuak eskatuta sortzen dituen hitz alkarketa barriak, biziak eta ugariak.

Leku / Toki

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu: *helduleku, topaleku, jesarleku, oilotoki, txarritoki, geltoki...*

Dana dala, bestelako kasuetan banan idatzi behar da: *leku(-)izen, leku agiria...*

1.6. MAILEGUTZA

Maileguak hartukeran euskerazko fonetika-legeak kontuan hartu behar dira. Halan, esate bate-rako, euskeraz ez dago *r-* edo *s-* kontsonantez hasten dan berbarik eta mailegu moduan geu-gantzen dogunean bokal protetiko bat ipinten jako aurrean (a, e, i): *errege* (< REGEM), *erru - beda* (< ROTAM), *espíritu* (< SPIRITUM), *eski* (< ski)... Halanda be, mailegu barri-barriek, siglek eta izen propioek ez dabe hasiera-bokal hori hartzen: *record, stop, RENFE, Schubert...*

Horrezaz gainera, berba amaierak be lege jakinak beteten ditue sarritan.

Latinez	Euskeraz	Adibideak
-ANUM, (-ANUS), -I -ERNUS, -A, -UM	-O -O	dekano, plano... moderno, alterno... Baina zaharretan, gobernu, infernu...
-IMUM, (-IMUS), -I -TER, -TRA, -TRUM -VERSUM, -I -ATUS, -US -CRETUM, -I -ITUM, -I -ULUS, -I -UTUM, -I -ALIS	-O -O -O -U -U -U -U -U -U -AL	minimo... neutro... bertso, unibertso... aparatu... dekretu, sekretu... kreditu... kalkulu, artikulatu... estatutu, institutu... bokal, material, mineral... Baina zaharretan, ospitale, seinale...
-ARIUS, -A, -UM	-ARI	bibliotekari, politikari... Baina, planetario, primario...
-ENTUM, -I -ITAS, -ATIS -TIO, -ONIS -TOR, -ORIS	-MENTU ² -DADE ³ -ZINO ⁴ -ORE	funtzionamentu, tratamentu... unibertsidade, puntualidade... maldizino, manifestazino... ordenadore, eskultore, kolore... Baina, motor...

Grekoz	Euskeraz	Adibideak
-ISMO	-ISMO	marxismo, feudalismo...
-ITIS	-ITIS	meningitis, flebitis...
-O	-O	dialekto, pedagogo...
-SIS	-SI	analisi, metamorfosi...

² Batuaz: *-mendu*.

³ Batuaz: *-tate*.

⁴ Batuaz: *-zio*.

Erromantzetiko aditzak	Euskeraz	Adibideak
-ADO	-ADU	atentadu...
	-AU	errezau, kantau, kobrau, olgau, pagau...
-IDO	-IDU	absolbidu, deduzidu, defendidu, kabidu, mogidu, segidu...

Gogoratzen dozue zeintzuk diran 10 mandamentuak?
 Unibertsidadeko dekanok *bere laguntzailearen dimisinoa eskatu eban.*
 Ordenadorea *erosi dot “Konekta Zaitetz” planari esker.*

1.7. LOTURIK ALABEREIZ

Partikula batzuk loturik ala bereiz idatzi behar doguzan zalantza sortzen jaku sarritan. Horreek argitzeko asmoz hona hemen oinarritzko idaztarau batzuk:

Arazo

Aditza + *arazo* aditz arazlea beti loturik idazten da, aditzoinaren gainean ia beti: *esanarazo, galarazo, jakinarazo, janarazo...*

-*r* edo -*s* amaiera daben aditzek -*t*- tartean hartzeko joera dabe (*agertarazo, ikustarazo...*), baina idatzian hainbarik erabiliko dira: *agerrarazo, ikusarazo...*

-*a* amaieradun aditzek -*a*- bakarra gordeten dabe: *aterarazo, botarazo...*

Ba

Baiezkoa zein baldintzazkoa izan daiteken partikula hau loturik idazten da beti: *badator, badino, bazan... balitz, balego, balebilz...*

Dana dala, baiezko esaldietan, aditzaren modalidade hitz batzuk tartekatzen diranean banan idatziko da: *ba al zatoz?, ba ete daki?...*

Ezkero

Batuz -*nez gero* idatzi ohi dan kausazko menderagailua bizkaieraz *ezkero* idazten da, ahoz esaten dan modu-moduan: *eskatu ezkero, etorri ezkero, lagundu ezkero, parkatu ezkero, dagoan ezkero, ebilen ezkero...* Denporea adierazoteko be bardin idazten da: *ordu biak ezke-ro, bost eta erdiak ezkero, atzo ezkero, gauera ezkero, gabonak ezkero...* Guztiz lexikalizatu-ta agiri da aditzondoakaz: *honezkero, horrezkero eta harrezkero.*

Nongura / nonahi / non-nahi, zenbatgura...

Galdetzailea + *gura / nahi* egiturakoak lotuta idazten dira: *nongura / normahi, zergura / zer-nahi, noizgura / noiznahi...*

Dana dala, galdetzailea -*k*, -*n* edo -*t* hizkiez amaitu ezkero, berba baten (*nongura / nonahi, zenbatgura / zenbatnahi...*) edo marratzuz bereizita (*non-nahi, zenbat-nahi...*) idatzi daitezke.

1.8. KONTSONANTE ALTERNANTZIAK

Euskalkien arabera, kontsonanteen arteko hainbat txandaketa gertatzen dira. Jarraian bizkai euskeraz nagusi diranak aztertuko doguz:

b / p:

Berba hasieran *p-* da ugariagoa: *parkatu, pazko, pekatu, pekorotz, pitxi, podere...* Baina kasu batzuetan *b-* dun formak be erabilten eta txandakatzen dira: *barre, biztu... boltsiko / poltsiko...*
Berba barruan: *denpora, denporale...*

d / t:

Berba hasieran biak ikusten dira: batetik, *dendatu...*; bestetik, *tanbolin, torre...*

Beste posizinoetan be aukera biak agiri dira: *ondasun...*, baina *santu...*

Atzizkiei jagokenez, bizkai euskeran *-dade* aldaera erabilten da *-tateren* lekuan: *abilidade, nobedade, umildade...* Kasuren baten, *bakartade*. Era berean *-mentu* erabilten da, eta ez *-mendu*: *kunplimentu, mandamentu, sufrimentu...*

g / k:

Berba hasieran *k-* da nagusi: *kerexa, kolko, konbit, korotz, kurutze...* Baina berba batzuetan *g-* erabilten da: *gastaina, ganbelu...* Eta beste batzuetan forma biak dira ezagunak batean edo bestean: *korbata / gorbata, korta / gorta...*

Alkarketetan eta eratorpenetan be kontsonante alternantziak edo aldaketa fonetikoak gertatzen dira atzizkiak hartu edota berba biak lotzen diran lekuan. Hona hemen adibide batzuk:
b > p: *aizpuru* (haitz + buru), *lupera* (lur + behera), *zalpurdi* (zaldi + burdi)...

d > t: *sagasti* (sagar + -di)...

g > k: *aizkorri* (haitz + gorri), *moldakatx* (molda(tu) + gatx)...

p / f:

Berba hasieran *p-* da nagusi: *praka, prijidu, proba...* Halanda be, kasu batzuetan, batez be mailegu-hitzetan: *fardel, feria, firu, fraile...* edota: *famau, familia, fanfarroi, frutu...*

Beste posizinoetan be gehienetan *p-* erabilten da: *alper, aproba...* Dana dala, kasu batzuetan: *afari...*

1.9. SIGLAK

Siglak (ADN, AHT, EUSTAT, SOS...) berba batzuen lehen letra hartuta sortzen dira. Printzipioz, euskeratu egin behar dira (ONU > NBE, OTA > TAO...), baina asko jatorrizko hizkuntzan zabaldua dagoz eta halan erabilten dira (FBI, IRA, PP, PSE-PSOE...). Letra larriz eta tartean puntu barik idazten dira. Izen berezien moduan deklinatzen dira eta deklinabide marka zuzenean hartzen dabe, marratxu barik eta hutsunerik itxi barik, hiru kasuotan izan ezik:

- kasu-marka sigla amaitzen dan letra beragaz hastean (AEK-k, BBK-k...).
- sigla *-r* letraz amaitu eta kasu-marka bokalez hastean (RPR-eko, UER-ek...).
- maiuskulaz idatzitako testu zatietan eta izenburuetan (EAE-KO LEHENDAKARIA, EITB-KO ZUZENDARIA...).

Siglak izen bereziak diranez artikulatu barik idatzi behar dira. Halanda be, sigla batzuk lexikalizatu egin dira edo bide horretan dagoz, eta artikulatu erabilten dira (BEZA, NANA...), eta hainbat kasutan letra xehez idaztea be posible da (Hiesa, Unicef...).

ABLE	Aldi Baterako Laneko Enpresa	ETA	Euskadi Ta Askatasuna
AEK	Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea	GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
BBK	Bilbao Bizkaia Kutxa	HABE	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
BEZ	Balio Erantsiaren Gaineko Zerga	HAEE	Herri Arduraritzaren Euskal Erakundea
BHI	Bigarren Hezkuntzako Institutua	HEO	Hizkuntza Eskola Ofiziala
DBH	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	HIES	Hartutako Immuno-Eskasiako Sindromea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa	HPS	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
EBPN	Euskera Bizibarritzeko Plan Nagusia	LAB	Langile Abertzaleen Batzordea
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea	LH	Lanbide Heziketa
EEE	Europako Ekonomia Elkartea	IZO	Itzulpen Zerbitzu Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	NAN	Nortasun Agiri Nazionala
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea	NATO	Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (OTAN)
EIE	Euskal Idazleen Elkartea	NBE	Nazino Batuen Erakundea (ONU)
EITB	Euskal Irrati Telebista	OHE	Objektu Hegalari Ez-ezaguna (OVNI)
EIZIE	Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea	TAO	Trafiko eta Aparkamenturako Ordenamentua
ELA	Eusko Langileen Alkartasuna	UEU	Udako Euskal Unibertsitatea
ENL	Euskeraren Normalizazio Legea	UZEI	Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea

IRALEko ikasleak 1HE eta 2HE atera guran dabilz aurtan be.

DBHko ikasleen artean HIESa daukan ikasle bat dago.

Irratian esan dabe FBIk 50 lagun atxilotu dituala New Yorken.

BBK-k hamar BMW zozketatuko ditu hileon.

1.10. IKURRAK ETA SINBOLOAK

Ikurra edo sinboloak (km, l, mg, min...) kalidade, kantidade, unidate, prozesu eta abarren laburtzapenak dira. Normalean nazinoartekoak dira eta batez be zientzia-teknika arloan erabilten dira. Ikurra puntu barik idazten da eta azpian dagoan berbearen moduan deklinatzen da, berba osoa aurrean balego lez. Ikurraren eta deklinabide atzizkiaren artean marratxua jarren da.

cal	kalaria	Li	litioa	h / or	ordu
cl	zentilitro	Na	sodioa	min	minutu
kg	kilogramo	K	potasioa	seg	segundo
km/h	kilometro orduko	O	oxigenoa	m/s	metro segundoko
m	metro	H2O	ura		
ha	hektarea	He	helioa		

*Zubeldiak 2 min-ko alde atera deutso bigarrenari gaurko etapan.
 3 kg-ko txuleta ederra jan genduan Berrizen atzo hiru lagunen artean.
 Ia 350 km/h abiadura hartzen ei dau Makinenen auto barriak.
 2 m-ra heltzeko gitxi falta dau horrek, hain da trunkila!*

1.11. LABURDURAK

Laburdurak (adib., luz., zab. ...) berba baten edo berba moltso baten letra gitxituak dira. Hizkuntza bakotzak bere laburdurak daukaz. Gehienetan letra xehez idazten dira eta amaieran puntua jarten da beti. Deklinabide marka ahoskeraren arabera da, eta marratxu eta tarte barik idazten da. Dana dala, taulak, zerrendak eta holakoak egiteko erabilten diranez, normalena ez deklinatzea da. Testuaren barruan ahalik eta gitxien erabiltea gomendatzen da.

Bi berbako laburduretan: letra + puntua + letra + puntua.

adib.	adibidez	kap.	kapitulua	or.	orrialdea
and.	andrea	K.a.	Kristo aurretik	orr.	orrialdeak
e.a. / etab.	eta abar	K.o.	Kristo ostean	P.D.	posdata
esk.	eskuma	ik.	ikusi	P.K.	posta kodea
ezk.	ezkerra	jn.	jauna	P.Ku.	posta kutxa
k.	kalea	tel. / tf.	telefonoa	zenb. / zk.	zenbakia

*Sari asko irabazi zeinkiez gure lehiaketan. Adib. motorrak, bidaiak, liburuak...
 Informazio gehiago gura badozue, ik. Peru Abarka, 25-40 orr.
 Hori zaharra be zaharra da, K.a.koa gitxienik be!
 Eutsi nire helbidea: Iturrimakurre pl. 8. zk. 4 esk., Gernika-Lumo. P.K. 48300.*

1.12. “H”

H hizkiaren erabilera zuzenak hainbat burukomin emoten deuskuz hegoaldeko euskaldunoi, ahoz ez da erabilten-eta. Beraz, ikusiz eta irakurritz ikasi behar dogu noiz erabili behar dan. Halanda be, ohar batzuk egin daitezke erabileraren inguruan:

1. Hitz hasieran:

a) Erakusleakaz eta horreetatik eratorritakoakaz:

hau, hori, ha, honetan, hor retarako...

b) Lekuzko adberbioakaz eta horreetatik eratorritakoakaz:

hemen, hor, han, honako, horraino...

c) Zenbakiakaz:

hiru, hamar, hoge, hirurogeta hamar...

d) *Hi* pertsonaren aditz formakaz, marka hori hasieran doanean:

haz, habil, hago, hintzan...

e) Hitz arrunt batzukaz:

harrapau, herri, hobeto, hur...

f) Izen berezi batzukaz:

Hondarribia, Hernani...

2. Hitz barruan:

a) Bokal artean, bokal bardinakaz zein desbardinakaz:

zahar, lehen, alkohol, zuhur...

ahots, nahi, bihotz, lehor...

Honeekaz batera, bizkaierako tradizino literarioan ezagunak dira *abots, legor, igaz, oge...*

b) Diptongo artean:

leiho, lehoi, oihu, zuhaitz...

Modu berean, Bizkaiko literaturan tradizino handia daukie beste honeek be: *legoi, zugatz...*

Bestalde, hitzari atzizkiren bat ipini ostean batutako bokalak badira ez da -h- erabilten.

ume + -aren > umearen

ume + -entzat > umeentzat

3. Hitz alkarketetan:

a) *H* hizkidun osagai bi alkartzen diranean, gehienetan bakarra ipinten da. Normalean hasierakoak gordeten dau:

harro + hobi > harrobi

hil + herri > hilerrri

hil + hobi > hilobi

Halanda be, *h* bi daukiezanak be topau geinkez zenbakietan:

hamar + hiru > hamahiru

hiru + ehun > hirurehun

Baina baita *h* biak galtzen dituenak be:

hatz + hamar > atzamar

b) Lehenengo osagaiak –silaba batekoa edo bikoia izanda– baino ez badauka *h* hizkia, hainbarik idazten da:

hatz + azal > atzazal

hatz + gura > azkura

hilen + argi > iretargi

herri + zain > ertzain

c) Lehenengo osagaia silaba bakarrekota bada eta bigarrena *h* eroan beharrekota bada, hainbarik idazten da:

goi + herri > goierri

d) Lehenengo osagaia kontsonantez amaitu eta bigarrena *h* eroan beharrekota bada, hainbarik idazten da:

oin + harri > oinarri

oin + hartu > onartu